

 www.muskiz.org

 /MuskizUdala

 @muskiz

 @muskizudala

 Muskiz Udala-Ayuntamiento

MUSKIZ ALDIZKARIA

/ 35. aldizkaria
2020ko urria

BI-1640-2017 LG zk.

*Muskiztarrek
igerileku
berriak
inauguratu
dituzte*

/3. orrialdea



*Laguntza-plana
autonomo eta
saltokientzat*

/2. orrialdea

*Etxez etxeko
laguntza
zerbitzua
sendotu egin da*

/4. orrialdea

*Udal
pilotalekuak
aurpegia berritu
du*

/5. orrialdea

*Pasaboloko
txapeldun bat
Muskizen*

/6. orrialdea

Editoriala

Ikasturte berria

Uda desberdina izan da aurtengoa; amaitu da plan asko albo batera utzi behar izan ditugun uda. Ohartzen naiz ez dela erraza izan, Udaletik ahal ditugun baliabide guztiak jarri ditugun arren eskura, Muskizek aurrera egiten jarraitu ahal izateko.

Pertsona zaugarrienen arreta areagotu dugu, eta Muskizko merkataritzan eta enpresetan COVID-19aren eragina txikiagoa izateko laguntzen plana egin dugu. Gainera, udalerrri honetako alkate eta herritar legez oso harro nago Muskizko herritarren eta elkarten elkartasunarekin, premiarik handienak artatzeko lankidetzan aritu baitira.

“Oso pozik nago herritarren arteko elkartasunagatik”

Udalean gure eguneroko lanarekin jarraitu dugu, “normaltasun berri” hau ahalik eta errazena izan dadin. Aire libreko igerilekuak inauguratu ditugu, eta oso harrera ona izan dute; kirol-instalazioak hobetu dira; txakurrentzako lehenengo parkea egin da udalerrrian; ikastetxeekin lankidetzan gabiltza; eta udal zerbitzu guztiak ere egokitu ditugu (kiroldegia, liburutegia, Gaztegunea...), herritarrek segurtasun-neurri guztiekin erabil ditzaten. Ahalegin guztia egin dugu osasun arloko segurtasun- eta babes-neurriak betetzeko eta Muskizek aurrera jarraitu ahal izateko.

Ikasturte berriaren hasieran ere ildo horretan ari gara lanean; aurreikusitako inbertsio batzuk abian jarri nahi ditugu, bai eta gure aurrekontuak doitu ere, milioi bat euro gutxiago bilduko ditugula aurreikusi baitugu.

Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkiet udal zerbitzu guztiei, euren lanagatik, bai eta muskiztarrei ere, euren jokabideagatik.

Borja Liaño Abarrategi
Muskizko alkatea



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak obren lizentzia eskatu du institutua abian jartzeko

Muskizko Udalak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eskaria jaso du institutu berria abian jartzeko obren lizentziarako. Proiektu honen alde lanean aritu da Udala hainbat urtez, eta hurrengo hilabeteetan ikusiko du argia.

Ikasturte berri segurua

Udaleko Hezkuntza Sailak udalerriko ikastetxe publikoei beharrezko guztia eman die Covid-19aren ondoriozko neurriak bete ahal izateko ikasturte hasieran: gel hi-

droalkoholikoak, lanpasak, guneak hobetu eta zentroetan mantentze lanak egin.



Guztira 157 autonomok eta enpresa edo saltoki txikik egin dute bat Forlanen laguntza-planarekin

Muskizko autonomo eta enpresa edo saltoki txiki askok egin dute bat Covid-19aren ondoriozko Forlanen ezohiko laguntzen lehenengo planarekin. Guztira 157k egin ahal izan dute bat laguntza hauekin, eta 237.261,42 euro eman dira guztira. Eskuratu dituzten laguntzak 125 eurotik hasi eta 4.300 artekoak izan dira, eta batez besteko zenbatekoa 1.636,28 eurokoa izan da.

Laguntzen lehenengo plana amaitu den arren, Udalak lanean jarraitzen du ekimen berriak abian jartzeko eta une berezi hauetan ahal den neurrian krisiaren ondorioak arintzen laguntzeko, inor atzean utzi gabe.



Etxez etxeko laguntza zerbitzua sendotu egin da

Etxez etxeko laguntza zerbitzua duela 33 urte hasi zen eskaintzen Muskizen, mendekotasun egoerei eta mendekotasunaren prebentzioari erantzunak eman beharra zegoelako, gizarako beste behar eta errealtate batzuei erantzuteaz gain. Eusko Jaurlaritzako araudiaren bermea izan du hasieratik, eta udal erregelamenduak arautu du. Zerbitzu honentzat abuztuaren 1etik abenduaren 31ra onartu zen zenbatekoa 260.416,66 eurokoa izan da.

Zerbitzu publiko soziala, osokoa, balio antza eta komunitarioa da, eta mendekotasun egoeran dauden edo egoteko arriskua duten pertsoneri edota familiei etxean bertan zuzeneko laguntza eskaintzen die, dela autonomia pertsonalean mugak dituztelako dela desintegrazio kasuak direlako edo familian arazo bereziak dituztelako; ondorioz, ohiko inguruan mantentzen dira ahalik eta kalitate handienarekin.

Iaz, Muskizko etxez etxeko laguntza zerbitzu honek 75 lagun artatu zituen guztira, batez beste 64 zerbitzu eskaini zituen hilean (gutxienez 62 eta gehienez 65), eta urtean 14.005,50 ordu izan ziren guztira.

Artatutako jendearen profilari dagokionez, erabiltzaile gehienak emakumeak dira, Muskizen apur bat gehiago (+%1), alargunak (%58) eta bakarrik bizi direnak (%56).

BFAren balorazioaren arabera mendekotasun mailari dagokionez, Muskizko erabiltzaile gehienek I. maila dute (%40); BLHn baino %13 erabiltzaile gehiago dago I. eta II. mailetan; aitzitik, III. mailan %6 gutxiago. Zerbitzuen %100 etxeko arretako lanak dira, eta zerbitzuen %75 baino gehiago arreta pertsonalekoak; artatutako kasurik gehienak mistoak dira. Ordu bakoitzeko proposatutako kostuari dagokionez, oinarriak oraintsu egin dituzten inguruko beste udalerrri batzuk hartu dira erreferentzia gisa.

Ordu gehiago zerbitzuan

Udal araudia gizarte zerbitzuen zorrora egokitu eta zerbitzuak etxez etxeko laguntza zerbitzuarekin bateragarri eginda, zerbitzuko orduak hazi egingo direla uste da, eta, ondorioz, pertsona gehiago artatu ahal izango da, gaur egungo urteko 13.500 orduetatik urteko 19.230 ordura igarotzea aurreikusten baita.



Muskiz Mugitu programa udan

Zaharren Udal Zentroaren bidez heldu aktiboentzako programa bat egin zen, eta uztailean eta abuztuan garatu da. Aire librean egindako jardueran segurtasun neurri guztiak bete ziren, eta Meatzari Plazan elkartu ziren adinekoak jarduera fisikoak egiteko; ekintza horren xedea zen zahartze aktiboa sustatzea, gizarte harremanak bultzatzea, autoestimua hobetzea eta parte-hartzea bultzatzea.



Ingurumen saila udalerriko zaraten mapak eguneratzen ari da

Ingurumen Saila udalerriko zaraten mapak eguneratzen ari da. Hori dela eta, herritarrek parte hartzeko "Línea Verde" orrialdearen bidez herritarrei inkesta bat egiteko gonbita egin zaie, ahalik eta informaziorik gehiena jaso, eta, ondorioz, beharren berri bertatik bertara izateko.



Muskizko Eguneko Zentroak helduekin jarduerak egiten jarraitzen du



Altzari berriak El Pobal burdinolarantz doan ibaiko pasealekuan

Muskizko Udalak uda garaian hobekuntza batzuk egin ditu ibaiko pasealekuan, eserlekuak jarri baititu ibilbide osoan; bi iturri ere jarri ditu, bata Nesillan eta bestea El Pobal burdinolan. Herritarren eskariei erantzunez egin dira hobekuntza horiek.



Udal pilotalekuak aurpegia berritu du, hormak berritu eta konpondu baitzaizkio

Muskizko Udalak pilotalekua egokitzen jarraitzen du; argiteria berregituratu eta aldagelak eta komunak berritu ondoren, 29.939 euro inbertitu ditu hormak berritzeko eta konpontzeko. Pilotalekua, pilota-elkarteek eta -zaleek erabiltzeaz gain, urtean zehar hainbat ekitalditarako ere erabiltzen da, eta, berrikuntza hauekin, amaitu dira dagoeneko une honetako obrak.


Udako hilabeteetan egin dira lanak, eta, hasteko, frontisa ez beste horma guztiak pikatu dira bi metrora arte, zartatuta eta urratuta baitzeuden.

Ondoren, geruza egokiago bat eman zaie, eta urdinez margotu dira frontoiko horma guztiak, kolore esanguratsua baita muskiztarrentzat.



Txakurgunea, txakurrentzako parke berria

Irailean inauguratu zen lehenengo "Txakurgunea", hau da, soilik txakurrek erabiltzeko parkea; beharrezko guztia dago (altzariak, iturria, agility gunea) El Malecóneko zelaien atzean dagoen toki honetan. Txakurrak askatasun osoz ibili ahal izateko aisialdiko gunea da.



Skate pista berritzeko lanak

Muskizko Udalak abuztuan amaitu zituen skate pistako berrikuntzak; 26.700 euroko inbertsioa izan da, eta nahiz Udalak nahiz Kirol Sailak "herritar gazteenen artean jarduera fisikoa sustatzeko lanean jarraitzen dutenez, azpiegitura hau berritu eta hobetu da oraingon".



Muskiztarrek igerileku berriak inauguratu dituzte

Muskizko Udalak kanpoko igerileku berrien obrak amaitu zituen, eta uztaiaz geroztik herritar guztiak eta kanpokoek erabili ahal izan dituzte irailaren 13ra arte. Ireki arren, Covid-19ak eragindako egoeraren ondorioz, ez da nahi bezalako estreinaldia izan, baina denek izan dute gozatzeko aukera, egungo egoeraren ondoriozko higiene neurriak betez.

Kanpoko igerilekuetako bat haurrik txikienezko da; 51 metro koadro inguru ditu, biribila da, eta 0,30 eta 0,50 cm ar-

teko sakonera du. Txikienezko uretako jolasen eremu bat ere badute igerilekutik gertu, txorrotekin eta jolasekin uraz gozatu ahal izateko. Helduentzako igerilekua irregularra da, 254 metro koadro da, 0,30 cm-tik 1,20 m arteko sakonera du, eta 130 laguntzako edukiera dauka.

Covid-19aren ondoriozko egoera bizi arren eta kanpoko igerilekuetan edukiera mugatuta egon arren (goizez edo arratsaldez baino ezin izan da joan), herritar ugari izan da uztailean, abuztuan eta irailean azpiegitura berrietan.



Solariuma igerilekuen ondoan

Muskizko kiroldegiaren kanpoko instalazio berrietan "solarium" bat ere egin da kanpoko igerilekuen ondoan, eguzkia hartu nahi eta hamakak eskura izan nahi dituzten guztientzat.

Futbol-zelaiaren ondoan dago, eta erabil-tzaile guztiak erabili ditzakete, dauden lekuetatik mugitu gabe; erabili ondoren, desinfektatu egin behar dituzte. Horretarako, gel hidroalkoholikoak eta desinfektatzeko materiala jarri du kiroldegiak.

Itzuli da zinema Meatzari Aretora

Muskizko Udalak Meatzari Aretoko zine-emanaldiak hasi ditu berriro ere. Irailaren bigarren hamabostaldiaz geroztik, zinema maite duten guztiak film estreinatu berriak ikusteko aukera izango dute. Kultura Saila lanean aritu da Covid-19aren ondorioz segurtasun-neurri guztiak bermatzeko.

Ondorioz, gehienez ere 5 sarrera erosi daitezke jarraian; sarrera bakoitzaren edo sarrera multzo bakoitzaren eskuinera eta ezkerrean eserleku bat libre utzi behar da, eta, leihatilan erositako gero, 1,5 metroko distantzia errespetatu behar da. Gainera, Meatzari Aretoran gel hidroalkoholikoa duten ontziak jarri dira, eta nahitaezkoa izango da jendeak gel hori erabiltzea eta maskara jantzita izatea.



Elkarrizketa



Alain Rodríguez, txapelduna pasaboloan

Kirol minoritarioa bada ere, Muskizko Club Pasabolo Donibane goi-goian dago Alain Rodríguezei esker. Muskiztarrak hat-trick bat erdietsi du, Bizkaiko, Euskadiko eta Espainiako txapelketak irabazi baititu, bakarkako modalitatean. Oholtzar pasaboloaren munduan murgilduko gaitu, erreleboa lortuko duen eta ahanzturan eroriko ez den itxaropenez. Hori dela-eta, Rodríguezek dei egin die erakundeek, pasaboloa eskola kirol gisa sar dezaten, txikienek kirol hau ezagutu eta ikas dezaten, historia luzea eta lotura handia baitu Muskizko herriarekin.

G/ Nola iritsi zinen pasaboloaren mundura? Kirol hau ezagutzen ez dutenez, zertan datza?

E/ 16 urtera arte, San Juan auzoan bizi izan nintzen, eta horko mutil ia guztiok gazte-gaztetatik jolasten ginen frontoian eta horri erantsitako bolalekuan. Kimu mailako lehiaketaren batean parte hartu banuen ere, 13 urterekin egin nuen debut ofiziala Bizkaiko Pasabolo lehiaketan, haurren mailan.

“ Erreleboa ez dago bermatuta; alternatibak bilatu behar ditugu, esate baterako, eskola kirolean sartu

Oholtzar pasaboloa bolaleku batean jokatzen da, eta honetan datza: korrika egiteko eremuan indarra hartu (7 kg inguruko bola bat eskue-tan duzula), botatzeko eremuan eskuineko oinarekin ezarritako muga zeharkatu gabe, eta bola ahalik eta zuzenen eta indar gehienarekin botatzea, ohol batean zehar; ahalik eta bolo gehien (3 jartzen dira) eta ahalik eta urrunen botatzeko horiek. Zelairantz bota behar dira, eta bertan daude jokaldiaren balioa zein izan den kalkulatzeko erabiltzen diren lerroak.

G/ Sari ugari dituzu lortuak, eta hat-trick bat erdietsi duzu duela gutxi, Euskadiko, Bizkaiko eta Espainiako txapelketak irabazi baitituzu bakarkako modalitatean. Lan handia eta entrenamendu asko al daude atzean?

E/ Tituluak irabaztea zaila da; urte asko igaro ditut asteroko entrenamendu eta txapelketatan, hobetzen ahalegintzeko, eta, zenbaitetan atsedean gutxi hartuta, eta ez dira beti lortzen esperotako emaitzak.

Aurten, alarma-egoerak eragindako geldialdiaren ondorioz, ezin izan naiz nahi beste

entrenatu, eta horrek eragina izan du, min arinak izan baititut, horrenbeste final horren denbora laburrean jokatu ondoren.

G/ Zein egoeratan dago gaur egun kirol hau? Ba al dago erreleborik?

E/ Urteen poderioz, fitxak galdu dira, kirol-eskaintza zabalagoa da, eta gero eta gehiago kostatzen da gazteak bolalekura ekartzea.

Egia da erreleboa ez dagoela bermatuta; alternatibak bilatzen ahalegindu behar dugu, erakundeekin elkarlanean; esate baterako, eskolekin harremanetan jarri eskola kirol gisa sartzeko, eta gazteei kirol hau zertan den irakatsiko dieten irakasleak aurkitu.

G/ Zein da Alain Rodríguezek jarri duen hurrengo erronka, aurtengo denboraldian lortutakoaren ondoren?

E/ Denboraldia amaitzean dago, eta nire buruari jarri diodan hurrengo erronka da kategoria gorenean ahalik eta goren finkatzea, sabairik jarri gabe; edozein lorpen izango da ongi-etorria.



Partaidetzazko diagnostikoa, merkataritza eta ostalaritzarentzat

Muskizko Udalak partaidetzazko diagnostiko bat abiarazi nahi du udalerriko merkataritza eta ostalaritza garatzen laguntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da zuek ere parte hartzea, forlan-muskiz.com webguneako inkesta betez.

Gazteguneak berriz ekin die zerbitzuei, ludotekak izan ezik

Muskizko Gazteguneak irailean ireki zituen ateak berriz, muskiztar gazteenak bertara joan zitezten, betiere, COVID-19aren ondoriozko egoeraren arabera neurri jarraikiz. Ahalik eta eremurik seguruena lortzeko, Gazteria Sailak zenbait neurri hartu ditu, Gazteguneako instalazioak egoki erabil daitezkeen; nolana ere, ludoteka zerbitzua ez da erabilgarri egongo.

Horregatik, etengabe desinfektatuko dira erabilitako materialak; aretoetan edukiera mugatua egongo da, eta ezinbestekoa izango da maskara erabiltzea une oro, bai eta gel hidroalkoholikoa ere. Gainera, debekatuta dago Gazteguneako eremu guztian jan eta edatea.